

Nekane Alonso Santamaria

BILBOKO UDALEKO BERDINTASUN, LANKIDETZA ETA HIRITARREN SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Maitasuna eta indarkeria kopla berean

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta (azaroak 25), instituzioak oro har, eta Bilboko Udalak geure kasuan, herritarrengana jotzen dugu emakumeenganako edozein motatako indarkeriari arbuioa publikoki adierazteko. Egunero lantzeko gaia dugu honako hau, are gehiago ikerketek belaualdi gazteengan aldaketa handirik somatzen ez dela ondorioztatzen dutenean. Zentzu horretan, maitasunak asko dauka esateko. Izan ere, jendarterean barneratuta daukagun maitasun erromantikoaren ereduak lotura zuzena izan daitezke menpekotasunezko bikote-harremanak sortzeagaz.

Maitasunaren gainean mito erromantiko ugari sortu izan dira, gure imajinario sinbolikoan txertatu egin direnak. Jeloskorkeria bezalako osagaiek oraindik ere indarrean darraite bikote-harremanetan eta amodio seinaleztat hartzen dira. Kontrola ere bikotearen gaineko interes modukoagaz nahasten da: maitasuna pasio agorrezin eta betierekoa denean baino ez dela existitzela uste dugu; laranja erdiagaz amesten jarraitzen dugu, printze urdina noiz helduko zain, eta abar.

Sozialki eraikitako sineskeria hauek geure jarre-
rak, pentsaerak eta itxaropenak baldintzatzen dituzte, sexuaren arabera. Generoaren arabera



Zintzotasunez

esango dut: eraldaketa hau

barren-barreneko iraultza

baten ondorio izango da,

zeinetan lehendabizi

emakumeok geure burua

eta gorputza maite eta

zaindu behar baitugu



jendarteratze diferentziala dela-eta, emakumeoi sinestarazi gura izan digute *beste* hori dela gure bizitzari zentzua emongo dion bakarra; bikote-harremanaren haustura geure erabateko porrota izango dela; maitasuna ahalguztiduna dela eta maite dugun hori aldatzeko gai izango dela; geure burua baldintza barik entregatu beharko dugula. Emakumeok harreman afektiboak bermatzeko heziak izan garen heinean, aurreko egoerek pairamen makurra ahalbidetuko dute, zer eta maitasunaren izenean.

Ez da lan samurra izango orain arte ikasitako maitasun eredu indargabetzea, osasuntsuagoa izango den beste baten alde. Erronka garrantzitsua daukagu: maitasunaren *kopla* berregitea. Harremanak askatasunean eta ez menpekotasunean bizitzen lagunduko digun maitasun eredu eraikitze-ko betebeharra dugu parez pare. Zintzotasunez esango dut: eraldaketa hau barren-barreneko iraultza baten ondorio izango da, zeinetan lehendabizi emakumeok geure burua eta gorputza maite eta zaindu behar baitugu. Hortxe dago gakoa: geure burua zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta aukera gehiago izango dugu geure harremanetan zer bilatzen ari garen jakiteko eta bilatzen duguna aurkitzeko; eta horrenbestez, nahi ez duguna irmoki ukatzeko. ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



ziren Irungo Luis Marianotik propaganda jendeari eskura banatzen zebiltzanak. Bikote mistoa, berrogeita hamarren bat urtekoak. Gizasemea ezaguna egin zitzaidan. Telebistan ikusia nuela iruditu zitzaidan. Hala izaki. Adin beretsuko bi emakumerekin ari ziren hizketan. Gaztelaniaz noski. “Guk hiritarra dugu xede, ez lurralde eta ez hizkuntza, hiritarra” entzun nion esaten gizonari. “Konstituzioa muga” gaineratu zuen emakumeak. Nire pausoa jarraitu nuen. Hori entzunda burutazioak nahasian eta dozenaka etorri zitzaizkidan gogora. Aberatsak langabeari esandako hura, sosak berez ez duela zoriona ekartzen nahiz eta lagundu, laguntzen duen.

UPyDkoak

Izan ere, espainiar lurraldetik konstituzioa galbahe gazteleraz mintzo den hiritarra, ez naiz ni, hauteskunde hauetan postaz bere boza igorriko duen Lapurdin bizi den euskalduna, euskararen lurraldean berme emango dion konstituziorik ez duen hiritar xume hau. Eta menpekotasunezko egoera hau onartzen ez duen politikaria ezjakina ala ziniko hutsa dugu, edozein kasuan lanjerosa. Eta hutsa, UPyDkoak horretan bereziak balira, espainiartasuna ondasun euskaltasuna eraikitzea eritasun sozialtzat jotzeko inpunitatea dutenak ugariak eta azkarrak baitira eremu hauetan. Esandakoa, aberatsentzat sosa ez da hain beharrezkoa. ■

